


Euskal AEko industria-prezioak %2,2 jaitsi dira 2024ko martxoan, aurreko hilaren aldean

2023ko martxoarekin alderatuta, industriako prezioek %6,5 egin dute behera

2024ko martxoan Euskal AEko industria-prezioak %2,2 jaitsi ziren aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Martxoko urte arteko tasak, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza jasotzen duenak, %6,5eko atzerakada izan du.

Azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2024ko martxoan, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%15,8) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (%1,7) sektoreek izan dituztela jaitsierarik handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioen hil arteko igoera izan duten sektoreak hauek izan dira: *Erauzketa-industriak* (%3,9) eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (%1,3).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberako sailkapenari jarraituz, 2023ko otsailarekin alderatuta, *Energiaren* prezioak %7,7 jaitsi dira. *Kontsumo-ondasunen* prezioak %0,7 jaitsi dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak %0,8 jaitsi direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak %0,3 igo direlako. Bestalde, *Bitarteko ondasunen* prezioak %1,1 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunenak*, berriz, %0,6 igo dira.

Urte artean, 2024ko martxoa 2023ko martxoarekin alderatuta, prezioen jaitsierarik handienak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%38,9) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (%6,9) adarretan izan dira. Aitzitik, urte arteko terminoetan igoera handiena izan duten prezioak *Erauzketa industriak* (%8,9) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak* (%7,6) adarretan izan dira.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Martxoa 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	123,2	-2,2	-6,5
SEKTORE-BANAKETA			
Aterate-industriak	138,3	3,9	8,9
Manufaktura-industria	129,9	-0,5	-1,0
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	131,1	-0,5	-1,6
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,6	0,1	7,6
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	140,4	-0,6	-6,9
Kokeak eta petrolioaren fintzen	140,6	0,1	-2,7
Industria kimikoa	144,6	-0,4	-4,6
Botiken fabrikazioa	132,8	0,3	3,3
Kaubtu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,0	-0,9	-2,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	139,7	-1,7	-1,2
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	121,7	0,6	-0,2
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	120,0	0,7	4,1
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	116,8	-0,2	1,6
Garraiorako materialen fabrikazioa	114,9	1,3	2,0
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	121,2	0,2	0,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	82,2	-15,8	-38,9
Ura	134,4	0,8	3,3
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,0	-0,7	-0,7
Kontsumoondasan iraunkorrek	120,9	0,3	5,4
Kontsumoondasan ez-iraunkorrek	130,4	-0,8	-1,5
Ekipo-ondasunak	119,9	0,6	0,9
Bitarteko ondasunak	134,4	-1,1	-1,7
Energia	106,8	-7,7	-24,8

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Apirilaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian* (%24,8) eta *Bitarteko ondasunetan* (%1,7). *Kontsumo-ondasunenak* %0,7 jaitsi dira, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* %5,4 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* %1,5 jaitsi direlako. *Ekipo-ondasunen* prezioak, aldiz, %0,9 igo dira.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **%95,27ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62